



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
2019/03/01

## **Euskal Emakume Hautetsien III. Batzarrak martiaren 8ko mobilizazioak bat egiteko deialdia egin dau, eta omenaldia eskaini deutse neskatuentzat eta neska gazteentzat erreferente diran hainbat arloko goi mailako lau profesionali**

Gernikako Batzarretxean gaur egin dan Euskal Emakume Hautetsien III. Batzarrak Foru Batzarretako egoitzaren jarlekuak bete ditu barriro, alderdi politiko eta sentsibilidade guztietako 200 emakume baino gehiago alkartuz helburu komunaren ale: gizonen eta emakumeen arteko benetako bardintasunean aurrera egitea. Leire Landeta Aguirre eta M<sup>a</sup> Victoria Hurtado López txistulariek, eta Leire Fontaneda Valenzuelak (silbotea) musikagaz hartu ditue emakume politikariak eta konbidauak barrutira heldu diranean, eta bakotzak ospakizuneko zapi bat jaso dau. Bertaratutako guztiek eskilaran argazkia atera ostean, ekitaldiaren lehenengo geldialdia Gernikako Arbolaren aurrean egin da. Bertan, Beti Jai Alai taldeko emakume dantzariak, antxina janzen ziran moduan jantzita, Lekeitioko Emakumeen Aurrekua dantzatu dabe eta gero, zirkulua osatuz, euskal hautetsiak zapien bitartez alkartu ditue. Holan joan dira, alkarregaz, Gernikako Batzarretxeko ate nagusirantz. Dantzariak osatu daben igarobidetik sartu dira osokoen aretora hainbat euskal erakundetan karguak dituen 200 emakume baino gehiago. Adarra entzun da, mendeetan Bizkaiko batzarretako saioen hasieraa marketan eban soinu tradizionala.

Batzarra 11:50 inguruan hasi da, Ana Otadui Biteri Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidentea buru zala. Bere irekierako berbaldian Otadui azpimarratu dauenez, “Gaur guk, emakume hautetsiek, politikan eta gizartean daukagun protagonismoa hobeto erakusten dogu”, urtero egiten dan Batzarraren garrantzia aitatu ostean, izan be, bertan “ideologia eta ibilpide desbardineko emakumeak alkartu gara barriro”. Konbidauen harmailetan egon diran gizonezko politikariei be ondo etorria emon deutse, “gaur pausu bat emon dabe albora”, esanez, eta “benetako bardintasunaren aldeko burrukan gure ondoan egotea” eskertu deutse.

Josune Irabien, Amurrioko alkateak (EAJ-PNV); Idoia Buruaga, Elorrioko alkateak (EH BILDU); Alba Delgado, Barakaldoko zinegotziak (PSE-PSOE); Pilar Legarra, Asteasuko alkateak (Asteasu Batuz - Independientes); Beatriz Marcos, Bilboko zinegotziak (PP), eta Paula Amieva, Getxoko zinegotziak (Elkarrekin Podemos) irakurri dabe EUDELe (Euskal Udalerrien Alkartek, María del Mar Zabala Mardaras zuzendari nagusia bertan be egon da) Emakundegaz alkarlanean –Izaskun Landaida Larizgoitia zuzendaria be bertan egon da– prestatu dauen eta Bizkaiko Batzar Nagusiek sinatu daben Martiaren 8ko Erakunde Adierazpena. “Bizitzak erdira” izenburua daukan eta udal guztiek adostu daben Adierazpenak, “emakumeen lan arloko prekariedadea eta pobrezia salatuz, indarkeria matxista moeta guztien kontra burrukatuz eta bazterketea eta arrazismoa gaitzesteko” beharra azpimarratu dau.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

“Emakumeek jasaten dituen zapalketa eta bazterketa sistema guztiak” desagertuazotea lortzeko, Adierazpenak neurri zehatzak proponiduten deutsiez udalerriei: benetako bardintasun eraginkorra bermatuko daben politika publikoak aurrera erodateko erantzukizuna hartzea, euren politika publikoen erdian zainketa politikak jartea, eta datorren barikuan, Emakumeen Nazinoarteko Egunean, Mobimendu Feministak deitu dauen grebea dala eta udaletako beharginen eta hautetsien greba eskubidea erraztea. Adierazpen horrek “herritarrentzako deia be jasoten dau, martiaren 8an deituta dagozan mobilizazioetan parte hartze aktiboa izan deien”.

### **Omenaldia eta aintzatespena**

Horren ostean, hainbat arlotan behar azpimarragarria egin daben lau profesionali egin jaken omenaldia eta Atzo-Gaur-Beti aintzatespenaren banaketa ekitaldia hasi dira. Omendutakoak honeek izan dira: Maribel Arriortua Markaida zientzialaria, Izaro Andrés Zelaieta artista, Adela Andikoetxea Ugarte baserritarra eta Lourdes Moreno Zabala ekintzailea. Eurak izan dira, Emakume Hautetsien III. Batzarreko konbidau bereziak, eta euren berbaldiak arreta osoz entzun dira Gernikako Batzarretxe historikoko hormen artean.

Bere berbaldiaren hasieran, Maribel Arriortuak eskerrak emon ditu beretzat “ohorea, poza eta erantzukizuna” dan aintzatespena jasotearren. “Batuetan bakarrik sentiduten zara mundu profesional lehiakor honetan, eta aintzatespen honek besarkadea, maitasuna, emoten deutsu”. Ikerlari, Kimikan Doktore eta EHU/UPVko Katedradunak autortu dauenez, kristalografiaz, kristalak aztertzen dituan zientziak, “nire bizitza markau dau”.

“Nire ametsa material iraunkorrak, prestazino altukoak, kostu txikikoak, energiaren ikuspegitik eraginkorrak –beti be Ekonomia zirkularraren kontzeptuaren barruan– eta ezagutzan eta garapen iraunkorrean oinarritutako industriara begira egongo diranak lortzea da”, adierazo dau Arriortuak, eta bere berbaldia amaitzean, Emakume Hautetsien III. Batzarraren aintzatespena “nire amagaz, nire amamagaz, nire familiako emakumeakaz eta gure aurretik egon ziran amekin, amamekin” konpartidu dau, “euren eskuzabaltasunagaz eta dedikazioagaz gaur guk Ekitaldi eder honegaz gozetako aukerea emon deuskuelako”.

Artearen munduan Izaro izenez ezagutzen dan Izaro Andrés Zelaieta kantautoreak bizitzari, emakume izateari eta musika panoramari buruzko gogoeta ederra egin dau bere berbaldian. Adierazo dauenez, musikaren munduan emakumeek aurkitzen daben lehenengo hesia generoarena da, erdi ezkutauta dagon arren. “Zenbat gizonezko ikusi dodaz jente aurrean gauzak txarto egiten, agertoki baten ganean? Askok. Eta zenbat emakume ikusi dodaz txarto abesten? Pentsetan geratu nintzan eta erantzuna argia da: bat bez”, azaldu dau Izarok. “Gogoetea egin, eta ondorio bat atara dot, hor dagola geure lehenengo oztopoa. Gure gizarteak aukerea emoten deutse mutilei gauzak dibertiduteko egiteko, beste barik, probetako, baina emakumeei ez. Eta holan joaku. Musika eskolak emakumez beteta, eta agertokiak emakume barik”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Izarok azaldu dauenez, musikari biren, Maika Makovskiren eta Zahararen, kontzertu bik animau eben libre sentidutera eta agertokira igotzera, ispilu aurrean abestuz eta Oscar bat jasotzeko ametsetan igaro ebazan umezaroaren eta gaztaroaren ostean. Barruko “klik” horrek bere musika ibilpideari ekiten bultzatu eban, “ez dozu hain ondo egiten” pentsau eta bere buruari “eta zer?” erantzun ostean.

Adela Andikoetxeak bere bizitzaren ibilpidea kontau dau, eta “lehen ortua gustetan ez jakon arren”, bizitzak lurraren espezialista bilakatu dauela esan dau, gaur egun Bizkaiko emakume nekazari onena dala esaten da eta. Bidea ez dala erraza izan, azpimarratu dau nekazaritzan beharrean 35 urte eta azokatar joaten 32 daroazan Adela. “Esfortzu eta sakrifizio handiko urteak izan dira, nire seme-alabez, etxeaz eta negutegiez arduratu behar nintzalako”, esan dau. “Nire beharra astelehenetik domekara luzatzen da, atsedeen barik; aste barruan, negutegiak, eta asteburuetan, Bizkaiko azokak. Opor egun bakar bat be ez dot euki”, azpimarratu dau Andikoetxeak, baina, gehitu dauenez, “horren truke, 700 sari baino gehiago irabazi izanaren poza daukat”. Bere berbaldiak “neskatoei eta neska gazteei” zuzendutako aholku bat be jaso dau, “egiten dabena gustuko badabe, nekazaritza edo beste edozer bada be, aurrera egin deiela”. “Esfortzuagaz eta gogoagaz beti lortzen da gura dozuna”, esan dau bukatzeko.

Lourdes Morenok bere lan eta bizitza ibilpidea definiduten daben lau fase identifikatu ditu: “pitagorina” ezizena jarten eutsien ikasle garaiak eta karrera bere promozinoko 1 zenbakiagaz amaitu izana; Madrilen, Londonen eta New Yorken banka munduan egin eban beharra; etxera, Donostiara, itzuli zanekoa, alabea zaintzeko, bere arlo profesionalean 100etik Ora pasauz, finantza arloko aditua izatetik, atsedeen hartu barik behar egitetik, guraso alkartean laguntzera, bere alabea, “nire zorion iturri nagusia” zaintzeko; eta, bukatzeko, “orain hasi barri dodan enpresario rola”.

Nazinoarteko finantzetan aditu eta Bolueta Engineering enpresaren jaubeetako bat eta bazkide zuzendaria danak autortu dauenez, ez eban bere ibilpide profesionala planteau. Horrexegaitik, “5, 10 edo 30 urtetan zer egin gura daben ez dakien personei, pausu bat emon eta aurrera egiteko” aholkua emon deutse. “Bide bat trazauz eta pausu baxotxean gauzak ondo egiten ahaleginduz, aurrera egingo dozu”. Bere berbaldiaren bukaeran, “zuen beharrean bikaintasunaren bila behar egitera eta eguneroko egitekoan pasinoa bilatzera eta sortzera” animau ditu persona guztiak. “Ez gara superwomanak, eta hori ondo dago”, adierazo dau, eta, bukatzeko, hau esan dau: “balorau daiguzan geure lurreko enpresarioak. Gure DNA izan da, eta behar dogu”.

Berbaldien ostean, Ana Otadui Biteri Bizkaiko Batzar Nagusietako ordezkari nagusiak “Atzo-Gaur-Beti” aintzatespena emon deusie Maribel Arriortuari, Adela Andikoetxeari, Izarori eta Lourdes Morenori, bertan alkartu diran emakume eta konbidau guztien txalo artean. Alazne Zabala Sagarduyk ohorezko aurrekua dantzatu dau lau omenduen ohoretan, eta Izarok, Garazi Esnaolak pianoan lagunduta, XIX. mendeko Iparragirre bardoaren “Gernikako Arbola” ereserkia abestu dau, Euskal Emakume Hautetsien III. Batzarrari bukaera parebakoa emonez. Txistulariek “Alkate soinua” jotzen eben bitartean, bertan alkartutako 200 emakume hautetsi baino gehiagok eta lau konbidau bereziek batzarrak itzi ditue, Gernikako Arbolara gerturatuzko. Bertan atara daben argazkiagaz betiko gogoratuko dabe gaurko ekitaldia.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
01/03/2019

## **La III Asamblea de Mujeres Electas Vascas anima a secundar las movilizaciones del 8 de marzo y homenajea a cuatro destacadas profesionales en diferentes campos que son un referente para las niñas y las jóvenes**

La III Asamblea de Mujeres Electas Vascas, celebrada hoy en la Casa de Juntas de Gernika, ha vuelto a llenar los escaños de la centenaria sede de la cámara foral con más de 200 mujeres de todos los partidos políticos y sensibilidades unidas por un objetivo común: avanzar en la igualdad real entre hombres y mujeres. Las txistularis Leire Landeta Aguirre y M<sup>a</sup> Victoria Hurtado López junto a Leire Fontaneda Valenzuela (silbote) han recibido con música a las políticas e invitadas a su llegada al recinto, donde cada una ha recibido un pañuelo conmemorativo. Tras una foto de todas en la escalinata, la primera parada del acto ha sido ante el milenario Árbol de Gernika, donde dantzaris del grupo Beti Jai Alai, ataviadas a la antigua usanza, han bailado el Aurresku de Mujeres de Lekeitio y luego, formando un círculo, han ido enlazando con los pañuelos a las electas vascas, que han ido encaminándose así, unidas en concordia, hacia la puerta principal de la Casa de Juntas de Gernika. Las dantzaris han formado un pasillo por donde han ido entrando en el salón de plenos las más de 200 mujeres que ocupan cargos en diferentes instituciones vascas. Ha sonado el adarra, el tradicional sonido que desde hace siglos ha marcado el inicio de una sesión juntera en Bizkaia.

Sobre las 11:50 horas ha comenzado la Asamblea, encabezada por Ana Otadui Biteri, Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia. En su discurso de apertura, Otadui ha destacado: “Hoy nosotras, las mujeres electas, visibilizamos mejor nuestro protagonismo político y social”, tras señalar la importancia de esta Asamblea anual en la que “volvemos a reunirnos mujeres de diferentes ideologías y trayectorias”. También ha dado la bienvenida a los hombres políticos presentes, sentados en la tribuna de invitados, que “hoy dan un paso a un lado” y les ha agradecido “teneros entre nuestros aliados en la lucha por una igualdad efectiva”.

Josune Irabien, Alcaldesa de Amurrio (EAJ-PNV); Idoia Buruaga, Alcaldesa de Elorrio (EH BILDU); Alba Delgado, Concejala de Barakaldo (PSE-PSOE); Pilar Legarra, Alcaldesa de Asteasu (Asteasu Batuz - Independientes); Beatriz Marcos, Concejala de Bilbao (PP), y Paula Amieva, Concejala de Getxo (Elkarrekin Podemos) han leído la Declaración Institucional del 8 de Marzo, Día Internacional de las Mujeres, elaborada por EUDEL (Asociación de Municipios Vascos), en colaboración con Emakunde –representada por su directora Izaskun Landaia Larizgoitia- y suscrita por Juntas Generales de Bizkaia. En representación de EUDEL ha acudido su directora general, M<sup>a</sup> del Mar Zabala Mardaras. Con el título “Las vidas al centro”, esta Declaración consensuada con todos los ayuntamientos ha subrayado la necesidad de “denunciar la precariedad laboral y pobreza de las mujeres, luchar contra todas las formas de violencia machista y rechazar la exclusión y el racismo”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Para lograr la desaparición “de todos los sistemas de opresión y discriminación que afectan a las mujeres”, la Declaración propone medidas concretas a los municipios: asumir la responsabilidad de llevar adelante políticas públicas que garanticen la igualdad real y efectiva, asumir la responsabilidad de poner en el centro de sus políticas públicas las tareas de cuidado, así como facilitar el ejercicio del derecho a la huelga a las trabajadoras y electas municipales con motivo de la huelga convocada por el Movimiento Feminista el próximo viernes, Día Internacional de las Mujeres. La Declaración incluye también “un llamamiento a la ciudadanía para que participe activamente en las movilizaciones” convocadas el 8 de marzo.

### **Homenaje y reconocimiento**

A continuación, ha comenzado el homenaje y la entrega del reconocimiento Atzo-Gaur-Beti a cuatro mujeres que son un referente para las presentes y futuras generaciones de mujeres y que han despuntado en diferentes campos profesionales: la científica Maribel Arriortua Markaida, la artista Izaro Andrés Zelaieta, la baserritarra Adela Andikoetxea Ugarte y la emprendedora Lourdes Moreno Zabala. Ellas han sido las invitadas especiales de la III Asamblea de Mujeres Electas y sus discursos desde la tribuna se han escuchado con atención entre los muros de la histórica Casa de Juntas de Gernika.

Maribel Arriortua ha comenzado su discurso agradecimiento un reconocimiento que es “un honor, una satisfacción y una responsabilidad”. “A veces te sientes sola luchando en este mundo profesional competitivo y este reconocimiento viene a abrazarte, a mimarte”. La investigadora, Doctora en Química y Catedrática de la UPV/EHU ha confesado que la cristalografía, ciencia que estudia los cristales, “ha marcado mi vida”.

“Mi sueño sigue siendo conseguir materiales sostenibles y de altas prestaciones, de bajo coste, energéticamente eficientes - siempre bajo el concepto de la Economía circular-, y orientados a una industria basada en el conocimiento y en el desarrollo sostenible”, ha declarado Arriortua, quien ha finalizado su discurso compartiendo el reconocimiento de la III Asamblea de Mujeres “con mi ama, mi amama, las mujeres de mi familia, y con las madres, amas, abuelas y amamas que nos precedieron, y que con su generosidad y dedicación han permitido que hoy nosotras podamos disfrutar de este hermoso Acto”.

La cantautora Izaro Andrés Zelaieta, conocida en el mundo artístico como Izaro, ha realizado en su discurso una bella reflexión sobre la vida, ser mujer y el panorama musical. Ha hablado de cómo descubrió que la primera barrera a la que se enfrentan las mujeres en el mundo de la música es la de género, aunque esté camuflada. “¿Cuántos hombres he visto haciendo mal cosas públicamente, encima de un escenario? Muchos. ¿Y cuántas mujeres he visto cantando mal? Me quedé pensando y la respuesta está clara: ninguna”, ha explicado Izaro. “Lo he reflexionado y he llegado a la conclusión de que ahí está nuestro primer obstáculo. Nuestra sociedad permite a los chicos hacer cosas simplemente por diversión, para probar, pero a las mujeres no. Y así nos va, las escuelas de música llenas de mujeres y los escenarios, sin ellas”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Izaro ha contado que dos conciertos de sendas músicas, Maika Makovski y Zahara, le impulsaron a sentirse libre y animarse a saltar al escenario, tras una niñez y adolescencia cantando delante del espejo y soñando con recibir un Oscar. Un “clic” interior que le hizo emprender su carrera musical, tras pensar “no lo haces tan bien” y contestarse a sí misma “¿y qué?”.

Adela Andikoetxea ha contado su trayectoria vital y aunque ha asegurado que “la huerta no le gustaba”, la vida le ha convertido en una especialista en la tierra hasta ser considerada hoy día la mejor hortelana de Bizkaia. El camino no ha sido fácil, ha destacado Adela, que lleva trabajando 35 años en la agricultura y 32 participando en ferias. “Han sido años de mucho esfuerzo y sacrificio, porque me tenía que ocupar de mis hijos, la casa y los invernaderos”, ha relatado. “Mi trabajo es de lunes a domingo, sin descanso; entre semana, los invernaderos y los fines de semana, participando en las ferias y mercados de Bizkaia. No he tenido ni un día de vacaciones”, ha subrayado Andikoetxea, quien ha añadido que como contraprestación, “tengo la satisfacción de haber ganado más de 700 premios”. Su intervención ha incluido también un consejo “a las niñas y jóvenes” para que “si les gusta lo que hacen, ya sea la agricultura como otro sector, que sigan adelante”. “Con tesón y esfuerzo siempre se consigue lo que te propones”, ha concluido.

Lourdes Moreno ha identificado cuatro fases que definen su trayectoria profesional y vital: sus tiempos de estudiante con el mote de “pitagorina” y acabando la carrera siendo número 1 de su promoción; su trabajo en banca en Madrid, Londres y Nueva York; su regreso a casa, a San Sebastián, para cuidar de su hija, pasando en el campo profesional de 100 a 0, de experta financiera trabajando sin descanso a ayudar en el Ampa, para cuidar de su hija “mi mayor fuente de felicidad”, y por último, “el rol de empresaria que acabo de comenzar”.

Experta en finanzas internacionales y copropietaria y socia directora de Bolueta Engineering, Moreno ha desvelado que no había planeado su trayectoria profesional. Por ello, ha aconsejado “a aquellas personas que no tienen claro qué desean hacer en 5, 10 o 30 años, que den un paso y comiencen a andar. Trazando un camino y buscando hacer las cosas bien en cada paso, te hará progresar”. Al final de su intervención, ha animado a todas las personas a “trabajar en la excelencia en vuestro trabajo y a buscar y crear la pasión en el día a día”. “No somos superwoman y eso está bien”, ha declarado para concluir diciendo: “valoremos al empresario y a la empresaria de nuestra tierra. Ha sido nuestro ADN y lo necesitamos”.

Tras los discursos, Ana Otadui Biteri, máxima representante de las Juntas Generales de Bizkaia, ha entregado el reconocimiento “Atzo-Gaur-Beti” a Maribel Arriortua, Adela Andikoetxea, Izaro y Lourdes Moreno entre los aplausos de todas las mujeres e invitados presentes. Un aurresku de honor para las cuatro homenajeadas que ha bailado Alazne Zabala Sagarduy y la interpretación del himno “Gernikako Arbola”, del bardo del siglo XIX Iparragirre, a cargo de Izaro y acompañada por la pianista Garazi Esnaola, han puesto el broche final a la III Asamblea de Mujeres Electas Vascas. Mientras txistularis interpretaban “Alkate soinua”, las más de 200 mujeres electas reunidas y las cuatro invitadas especiales han ido abandonado el hemiciclo para acercarse hasta el Árbol de Gernika, donde han inmortalizado el acto con una foto conjunta.